SAN IGNAZIO KLINIKA JOSE ELOSEGI ALKATEAREN HIRIBIDEA 43

D MAILA





Manuel Etxabe, 1905. Ramon Kortazar, 1929.

Deskribapena

Multzo honek zenbait handitze lan hartu ditu, sortu zutenetik bertatik. Etxaberen lehenbiziko osasun etxe proiektua, 1905ekoa, U erako oinplano batekin hasi zen, simetria ardatz zentrala eta zokalo, harri hormazko beheko solairu eta bilbadura marrazkia zeukan lehen solairuko profila zuela; malda handiko isurkiak zeuzkan, eta kopetea erdiko horma pikoan, hau da, neotudor bilbaduraren eragina zuen. U-aren ekialdeko besoaren muturra maila bakar batean eraiki zuten, estalkian argi zulo bat zuela, ebakuntza gelarako. U erako oinplanoa handitu egin zuen Kortazarrek, 1921ean, mendialdean L jiratu erako forma bat emanda, mazelan goragoko maila batera jota; horregatik, solairu bat gehitu zion profilari. 1921ean Kortazarrek beste handitze batzuk egin zituen, bi dorre, lehendabizi. Horietako bat mendebaldean dago, eta gailurrean kapitel bat jarri zioten, igogailuaren makineriarako, eta, bigarrena, ekialdean, zabalagoa, eskaileraren handitze modura. Ondoren, 1922an, Kortazarrek solairu bat goratu zuen gorputz nagusia, Etxaberen proiektuaren jatorria. Kortazarrek begiratoki bat ere diseinatu zuen, 1929an sarrerako arkupearen gainekoa, eta goragune bat, ebakuntza gelaren gainean. Eta data ezezagunean amaitu zuten, ekialdeko saihetsean, jatorrizko U pieza eta atzealdeko handitzea elkartzen. Horrela, inguratzaile guztia itxi zuten da, eta lotura txiki horrek uzten duen aztarna ekialdeko fatxadako estalki lauagatik hautematen da. Fatxada guztiek hizkera bera dute, sasi bilbaduren segida moduan, harri eta zurezko simulazioekin, multzoaren batasunaren bila.

D mailako berariazko babes araubidea

1. Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: Alboetako eta atzeko fatxadetako baoen konfigurazioa. Alboko fatxadetan bao berriak irekitzea baimenduko da, sasi bilbaduren ereduaren arabera, betiere harrizko eta zurezko simulazioei eutsiz gero. Fatxadako bi solairuko erantsia.

2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: fatxadetako harrizko erliebe eta emokatu guztiak.

3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: ez da baimentzen jasodurarik.

4. Nahitaezko lehengoratzeak: ez.